

URTEBETE GEROAGO, COVID-19A HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN

WEBINAR JARDUNALDIA.

MAIATZA

24

10ETIK
11:30ETARA



Aurkezpena

lazko maiatzean aurkeztu genuen Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokitik [“Covid-19ak Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeetan izan duen eragina 2020”](#) ikerketa. Ikerketa Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaiaren, [Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren](#) eta [Sareen Sarearen](#) ekimen gisa sortu zen Covid-19aren krisiak Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeetan izan duen eragina ezagutzeko asmoz.

Ikerketa horretatik abiatuta, eta Estatu edo Europa mailan identifikatu ahal izan ditugun beste kontakizun edo ikerlan batzuetan jaso duten moduan, Hirugarren Sektorre Sozialak bereziki konplexua den koitunturan presentzia adierazgarria izan duela egiaztatu dugu.

Itxialditik eratorritako arazoak (bat-batean gertatutako edo larriagotutako arazo psikologikoak, atentziorik eza, erreferenteak galtzea...) edo arraila digitalarekin lotutako arazoak, baliabide ekonomikoen gabezia, nahi ez den bakardadea eta abarrak ezaugarri nagusi gisa izan dituen errealitatea da eta gure indar guztiekin saiatu gara horri erantzuten.

Pandemiak izan duen inpaktu ekonomikoa eta soziala dela eta, eta bereziki, itxialdi garaian, askotan, beren bizitzek eragin nabarmena jasan duten pertsonen eta kolektiboen arretan oinarritzko zerbitzuak izan gara.

Beharrak areagotu eta zaildu egin diren egoeran, lan eta entrega handiko garaia izan da. Hala, gugandik eta gure erakundeengandik egokitzeko eta malgutzeko lan handia eskatu duten testuinguruei eta errealitateei erantzun behar izan diegu ikuspegi kualitatibotik abiatuta eta aparteko dedikazio eta ahaleginarekin.

Ezezagunak ziren larrialdi sozialeko egoerei erantzuna ematea, osasun-protokoloen arabera egokitzea, harremanak marko digitaletatik mantentzea, zerbitzu edo jarduerak aldatzea, berriro orientatzea edo haietako batzuk ezeztatzea, eta gehiegizko ahaleginak egitea beste batzuetan. Eta, batzuetan, esku-hartze arloko kolektibo berriekin lan egitea.

Barne mailan ere, aldaketak etorri dira: gure erakundeetako, lantaldeetako edo boluntarioekiko kudeaketarekin lotuta egon diren zailtasunetara eta aldaketetara egokitzea, adibidez. Horiek guztiak dira aurre egin behar izan diegun eta oraindik ere aurre egin behar diegun egoeretako batzuk.

Testuinguru honen baitan, errealitatea aztertzeko eta pertsonengandik gertu egonda beharrak detektatzeko gure rolak izan duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Era berean, bereziki delikatuak diren egoerekin eta beharrekin lotuta eragiteko, sentsibilizatzeko edo salatzeko bete genuen rola nabarmendu nahiko genuke, gero horiek erakundeei eta gizarteari jakinarazteko eta ikusgai jartzeko aukera izan baikenuen.

Eta baita administrazio publikoekiko elkarlanaren garrantzia ere (halakoa egon denean) beharrei erantzuna emateko garaian eragingarriagoak izateko.

Euskadin, lankidetzaren harreman horri esker, besteak beste, Euskadiko Elkarrikerketaren Zibilerako Mahaiko bazterketaren aurkako batzordea eta [Inor atzean utzi gabe COVID funtsa](#) sortu ziren. Azken hori batzordeak diseinatu eta 2020 eta 2021 artean hedatu zen erakundearen sareko lana eta lankidetzaren publiko-soziala abiapuntutzat hartuta. Funtsari esker, etxeko konfinamenduko etaparen eta haren ondoren Covid-19ak larriagotutako edo bertatik eratorritako hainbat egoerari lotutako beharrei erantzun ahal izan zaie eta honako hauek dira horietako batzuk: elikagaietarako eta lehentasunezko beste produktu batzuetarako sarbidea, eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzua (arraila digitala bizi duten familientzat eta haurrentzat) edo agurtzeko aukerarik izan gabe senideak galdu izanarekin lotutako doluaren prestaketa.

Hitz gutxitan esanda, gizartean eta sektorean (haren partaide den eta haren zerbitzura dagoen heinean) erabateko eragina izan duen errealitatea dugu aurrean. Errealitate horrek eragina epe laburrera ez ezik, epe ertainera eta luzera begira ere izango du eta oraindik ez dugu ezagutzen zein izango den eragin hori nahiz eta pandemian urtebete baino gehiago daramagun.

Pandemiako 12 hilabete gainditu ostean eta pilatutako esperientzia eta ezagutzarekin, berriro elkartu nahi genuen lehen ikerketa haietatik aldatu denaren inguruko gogoeta egiteko. Ikerketa haietan, hartzaileen artean, zerbitzuetan edo jardueretan, eta pertsonetan, baliabideetan edo erakunde eta sareetako kudeaketan krisiaren inpaktua zein izaten ari zen identifikatu genuen.

Webinar jardunaldiaren proposamena

Gai hauen inguruan eztabaida egiteko Hirugarren Sektore Sozialeko sareetako ordezkariekin topaketa egitea proposatzen dizuegu.

- **Zein izan da** pandemiaren baitan Hirugarren Sektore Sozial gisa bete dugun **rola**?
- **Nola aldarazi gaitu** pandemia honek gure zerbitzuei, jarduerari, intzidentzia-lanari, sentsibilizatzeko lanari eta gure erakunde eta sareen kudeaketari dagokienez?
- **Zer ikasi dugu** administrazio publikoekin izandako **elkarrizketa lanarekin eta intzidentzia sozialarekin** lotuta?
- **Zer erronka dugu aurrean** Hirugarren Sektore Sozial gisa?

Gonbidatu posibleak

- **Borja Doval**, Sareen Sareko presidentea.
- **Luciano Poyato**, Hirugarren Sektoreko Plataformako presidentea.
- **Francina Alsina**, Taula del Tercer Sector de Catalunya presidentea.

Izen-emateak

Izena emateko, esteka honen bidez egin dezakezu: <https://forms.gle/CSkkUaokTfLKEUG17>